

Klima (gailurraren) aldaketaz



IÑAKI BARCENA
EKOLOGISTAK
MARTXAN-EKO KIDEA

Txiletik. Santiagon iragarrita zegoen NBEk urtero klima aldaketari buruz antolatzen duen bilera: COP25 aurtun. Aldiz, egungo krisi politikoak ez du “bermatzen” nazioarteko ekitaldi diplomatiko honen jarduera “normala”. Beraz, Sebastian Piñera presidentea amore eman du eta Madrilera egingo da. Urriaren gobernuak metroaren txartelaren salneurria 30 peso igo eta ur tanta horrek 30 urtetan izandako mobilizazio eta protesta handienak sortarazi zituen. “Ez dira 30 peso, 30 urte dira” entzun diegu txiletar haserretuei. 30 urte pasa eta gero Txilen hasitako *shock* neoliberalak ez ditu azken emaitzak erakutsi. Pinochet diktadoreak utzitako herentzia hilkorra bizirik omen dabil.

Greta eta Belen. Gloria Baigorrotegui, ingeniari eta aktibista txiletarrak urriko altxamendua baino lehen bisitatu gintuen. Teknologia eta arazo sozio-ekologikoak tesi doktorala EHU burutu zuen eta Boroako Zentral Termikoa kasu azterketa izan zuen. Oraingoan, *Trantsizio Energetikoa eta Demokrazia*-z ari ginen Sarrrikoko Ekonomia Fakultatean, eta Greta Thunberg zein Belen Curamil

Maputxeen adibidea oso esanguratsua da. Belenek zioenez, ez daude kolapso klimatiko eta ekologikoaren esperoan, duela 500 urte kolapsatu baitzuten euren zibilizazioa. Kolonizatzaileena da orain kolapsora doana

gazteen diskurtsoak ekarri zituen gure begi eta belarrietara. Gazte eskandinaviarra ezaguna dugu, gure arteraino heldu berri den *Fridays For Future* gazte mugimendu ekologista unibertsala, baita haren aurkako kanpaina mediatikoa ere. Aldiz, Belen Curamil emakume gazte mapucheren hitzak ez ziren hain gertukoak. Bere aita Alberto Curamili *-lonko* (buruzagi) maputxeari, Temuco kartzelara dagoen preso politikoari- Goldman

Nobel alternatibo (Alberto Curamil Premio Goldman 2019) sari ekologikoa eman zioteneko hitzak izan ziren bereak. Gloriak, bi aktibista eredu eta bi mundu ulermen bateragarri baina oso desberdinak jarri zizkigun etsenplutzat. Maputxeen adibidea oso esanguratsua da. Belenek zioenez, ez daude kolapso klimatiko eta ekologikoaren esperoan, duela 500 urte kolapsatu baitzuten euren zibilizazioa. Kolonizatzaileena da orain kolapsora doana.

Madrilera. Pedro Sanchezek, Piñeraren testigua poz-pezik hartu omen zuen. Trantsizio Ekologikorako ministerioak COP25aren antolamendua onartu eta *green washing* kanpaina berri bati ekingo dio. Lekua aldatu, ekologisten leloak bahitu (sostengarritasuna, ekonomia zirkularra, trantsizio energetikoa, klima larrialdia...) eta esanahiak eraldatuko dituzte, baina horrek ez ditu larrialdiaren parametroak aldatzen.

Gloria, maratoni luze honetan, hemen eta orain, Atlantikoaren alde honetako ekologistek txiletarren testigua ere hartuko dugu. Zuekin batera, Amalurraren defentsan. ●



ARGIA 100 urte
Mende emankorra
euskal kazetaritza eraikitzen